



MIKEL SANTIAGO

## Danok duintasunez bizi

Arrazoi bat dala edo beste bat dala, etorkinen gaixa sarritan darabilgun barrikeria da. Plazentzian bertan be, azkenengo urtietan ikusi dogu munduko herri ezberdinetatik etorritako jendia gurekin bizi izaten, eta gurekin batera lan egitten. Hori aberasgarria da eta danok ipini bihar-ko dogu gure aldetik zeozer, datozenak gure herrian integratu daittian eta gure herri-izaeria mantentzen jarraitu daigun. Aspaldixan bolo-bolo dabil gizarte zerbitzuetatik etorkinentzat daren laguntzak larregikuak dirala, ez dabezela lanik egitten, iruzur egitten bizi dirala beste dirusarrera batzuk izaten dittuelako, eta bertakuentzat ez daguala holako laguntasunik. Azken finian, argudixo horrek, etorkinen kontra jotzeko erabiltzen dira. Eta ez da egixa hori guzti hori.

Lehenik eta behin, hona etortzeko beren familixia, lagunak, herrixa eta bizimodu guztia lagatzen dabezenak, gehixenak behintzat, lanera datoz. Gainera, guk egin nahi ez dittugun biharrak hartzen dabez eta askotan baldintza penagarrixetan. Egixa da, batzuk prestatuta datozen arren, askok ez dabezela hizkuntzia mendera-

tzen edo ez daukela lanerako bihar dan prestakuntzarik. Beste askok, hain baldintza eskasetan datozenez gero, gizarte zerbitzuen laguntza derrigorrez bihar dabe, oinarritzko biharrianak beteta euki ahal izateko. Horretarako dago oinarritzko errenta. Hori jasotzeko, urte bete egon bihar da gure Autonomi Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta, eta hemen bizi dan edozeinek jasoko leuken baldintza berak betetzia eskatzen jakue. Ez dauke laguntza haundixagorik etorkinak izatiagaittik. Gainera, oinarritzko errentia jasotziak, konpromiso bat eskatzen dau onuradunan aldetik, gizarteratze biddian prestatzeko. Eta gizarteratze hori lanaren bittartez egin bihar dala ulertzen da.

Beraz, herri moduan eta gizarte moduan, eskuzabalak izaten jakin bihar dogu. Lan egin ahal dabenak lan egin deixela. Eta ezin dabenak, gure herrikua izan ala kanpotik etorritakua izan, duintasunez bizi izateko aukeria izan deixela. Benetazko aurrerabidia, danok baldintza duinetan bizi izateko aukeria daukagun gizarte bat lortzia da-eta!

### ETORKINAK EZ DAUKE LAGUNTZA HAUNDIXAGORIK ETORKIN IZATIAGAITTIK



#### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze  
Telefonoa 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Arianne Unamuno

**Erredaktoreak:** Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

**Publizitatea:** Ane Larreategi

**Logotipoa:** Jon Gabilondo

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Diseinua eta maketazioa:** KOH diseinu grafikoa

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil-Pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.*

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



#### ERREPORTAIA

*Peio Arrietak bizi osoa darama pilotaren inguruan. Umetan Seguran jaso zuen hazia, profesionaletan garatu zen eta Soraluzeko pilota eskola sortuta, hemen erein zuen pilotarako zaletasuna. Badu zer esana.*

## Zorion agurrak



### Inhar Ariznabarreta

Otsailaren 6xan

urtebete

#### Zorionak Txipironxito!

Asko maite zaittugu

Markel, Aitaxo eta Amatxo



### Peio Arantzeta

Urtarrilaren 21ian

urtebete

#### Zorionak txiki!

Etsekuen partez



### Maria Vidal

Urtarrilaren 30ian

18 urte

#### Zorionak!

Zure familiaren partez muxu asko




### Nerea Atxotegi

Urtarrilaren 18xan

8 urte

#### Zorionak eta muxu haundi bat!

Etsekuen partez



### Amaia Bedaio

### Jon Ander Murgizu

### Lore Murgizu

Otsailaren 18xan 34 urte

Otsailaren 18xan 5 urte

Otsailaren 3an 3 urte

#### Zorionak hirukote!

Familixian partez.

## Gutunak

### EUSKAL HERRIAK AUTODETERMINAZIOA

Soraluzeko Euskal Herriak autodeterminazioaren aldeko taldea gara. Autodeterminazioaren aldeko dinamika zabal bat sortzia da gure helburua, herriko gizarte eragile, politiko eta sindikalak dinamika honen inguruan lanian jartzia besteak beste.

Ekimen batzuk egin dira herrian autodeterminazioaren alde, ekitaldi, hitzaldi... azkena abenduaren 16-an izan zen, talde askok eman zebe atxikimendua plazan egin ginuan ekitaldian. EA, BATASUNA, Soraluzeko Askatasun Hainak, LAB, EHE, SEGI, Bai Euskal Herriari, Gaztetxea, Askatasuna, Etixerat eta pilota taldea izan zian bertan parte hartu zebeak. Bertan izandako danori eskerrak emotia nahi dogu eta etorri ez zirenei galdera batzuk luzatzen dotsueguz, batez ere ELA eta EAJ-ri.

Sarri entzun dotsuegu, elkarrizketa dela konponbiderako bidea. Nola uler daiteke orduan horrelako ekimen baterako gogidatuak izanik erantzuteko gaitasunik ere ez izatea? Nazio mailako hitzek ez al dute herri mailan balio?

Autodeterminazioa, Euskal Herriaren aitortza. Ez al dira hauek herri honen konponbiderako gakoak?

Besterik gabe aurrerantzean egingo ditugun deialdietan parte hartzera gonbidatzen zaittuegu.

**EHko  
autodeterminazioaren aldeko taldea**

### AKATS BAT ARGITZEKO

Pil-pileaneko azkenengo alean, Madrilgo gertaeren inguruan urtarrilaren 4an Udaletxeko langileek lanuztea egin zutela azaltzen denez, argipen batzuk beharrezkoak direla uste dot:

- Udaletxeko langilegoaren aldetik ez dela egon inongo deialdirik, ezta parte hartzeko erabakirik lanuzte batean.

- Egun horretan, kontzentrazioak egiteko deialdi instituzionala egon zela eta norbaitek parte hartu bazuen, era pertsonalean ulertu behar dela, eta ez langileen kolektibo oso bezala.

**Rosa Etxeberria  
LABeko ordezkari sindikala**



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Lehiaketak

### • Kartel lehiaketa

Ermuko Udala . Martxoak 8- Emakumearen Nazioarteko Egunerako kartel lehiaketa. Adin nagusientzat, taldeka zein bakarka

**Saria:** 600,00 euro eta akreditazio-diploma.

**Epea:** 2007-02-13

**Tel.:** 943 17 63 22

**E-maila:** [udalermua@arrakis.es](mailto:udalermua@arrakis.es)

### • Literatur lehiaketa

Jalgi Surgir Emakumeen Elkartearen III. Literatur lehiaketa: "berdintasuna hurbilagoko etorkizuna". Gasteiz. 18 urtetik gorakoak.

**Gaia:** gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin loturikoa.

Euskaraz edo erdaraz.

**Epea:** 2007-1-31

**Tel.:** 645 968 955

## Lana

### • Udaltzain bat Eibarren

Eibarko Udalean udaltzain lanpostu bat betetzeko oposizioa-lehiaketa.

Eskola Graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokide bat izatea.

**Tfnoa:** 943 70 84 00

**www.gipuzkoa.net**

### EGURREZKO KUTXA SALGAI

Haritz egurrez egindako kutxa salgai. Euskal tailaduna. Neurria: 90x60x1,95

Telf.: 618854667

## Jaiotakoak

- EINER GIL MORALES
- ENEKO FELIX ASTASIO
- IKER DE LOS SANTOS PEREZ

## Hildakoak

- ANA MARIA INSAUSTI ALBERDI

## Zer irizten dotsazu?

*Tiranteak batean, manga motza bestean, gaur armarioan daukagun txamarrarik lodiena... 20°C-tik 0°C-ra ia egun batetik bestera pasatu gara eta ez da giro. Gure errua dela diote batzuk, besteek ostera tokatu egiten dela...*

# Aldaketa klimatikua heldu dala uste dozu?



**Anjel Murgoitio**

44 urte

**Langabetua**

Entzuten denez, hala ei da, Euskal Herrixan bai behintzat. Eta nik uste, gizakixa dala errudun. Ozono geruzako zulo hori be hor dago... Zaila ikusten dot berriz egoeria egonkortzia.



**Ibai Kortabarria**

11 urte

**Ikaslia**

Bai, eguraldixan aldaketak ikustia besterik ez dago. Eta hori, guk natura ondo zaintzen ez dogulako izan leike. Hemendik aurrera edozer gertatu leike, gure esku dago, ingurua zainduz.



**Nerea Irusta**

42 urte

**Irakaslia**

Bai, nere iritziz gainera gure eraginagaittik. Natura gehixago zainduko baginu... Hala be zikluak egoten dala esaten dabe batzuk eta ez dakit ba. Nik uste gai honen inguruan kontzientziatu bihar garala.



**Marisa Tornos**

42 urte

**Irakaslia**

Izan leike, baina ez dakit. Hala bada, gizakixon errua dala esango neuke nik. Kontzientziatu ezkerro eten leike, baina ez dot uste gutxiagora jungo danik.




**Asun Prol**

60 urte

**Zaintzailia**

Baiezkuano. Eguraldixa hainbeste aldatzia horregaittik izan leike. Gainera dana kutsatzen dogu: mendi, erreka... Guk ezer egin ezian hola jarraituko dau.



**Iñaki Etxezarreta**

37 urte

**Udaletxeko langilia**

Esaten dabe baietz. Eta honek, eguraldi aldaketa bortitz honekin zerikusixa daka. Ingurugirua gehixago zaindu bihar ginuke, gutxiago kutsatuaz, bestela txarre-  
ra juango da egoeria.



**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

**ARRANO**  
*tabernia*

Telefona 75 24 09

*"Giro euskalduna eta sanua"*

**ETORRI ETA GOZATU**

**etxera**  
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



# Plaza Barrixak bere egitura berreskuratuko du

Plaza Barrixa bere betiko egitura izatera bueltatuko da. Ranparen aurrean herritarren kontrako jarduerak behartuta, Udaleko Hirigintza Batzordeak Plazaren berezko itxura berreskuratzea erabaki du. Orain dagoen zementuzko arrapala (ranpa) kendu egingo dute, eta

gordetako harriekin eta berriekin, lehengo moduan jarriko dute. Iker Aldazabal Hirigintzako zinegotziak adierazi duenez, Plaza Barrirako irisgarritasuna bermatzeko kendu zituzten eskailerak eta petri-la. Orain beste moduren bat aztertuko dute arrapala kokatzeko.



## Patxi Beitiaren heriotza

Urtarrilaren 3an hil zen Patxi Beitia bermeotarra, 81 urte zituela. Ezoziko Ama dantza taldearen bultzatzaileetako bat izan zen, 1957. urtean, Jose Luis Perez Sarrasketa eta Don Enrikerekin batera. Lan handia egin zuen taldearen lehenengo urteetan. Eibarko Deportivoaren eta Bermeoko Alkartasunaren sortzaile ere izan zen. Goian bego.



## Aldaketak trafikoan

Urtarrilaren 26tik aurrera, urkanalizazio lanak direla eta, Eibartik datozen ibilgailuak poligonotik buelta sartuko dira herrira. Ezingo da Ezosi Bidetik Gabolatzerara aldapan behera joan, baina alderantziz, gora bai. Gabolatzekeko zubiak ere alderantzizko norantza izango du.

## Udalak usoei jaten ez emateko eskatu du

Urtero moduan, usoa batzeko kanpaina hasi dute Mankomunitateko arduradunek, eta adierazi dutenez, "ez zaie usoei jaten eman behar, gehiegi ugaritzen baitira. Gainera, gure lana oztopatu egiten da, guk jaten emanda erakartzen ditugu-eta." Arratoiekin laster hasiko dira.



**AZKENEAN, HELDU DA NEGUA.** Asteartetik, zuri esnatu da herria egunero. Kale eta mendiak elurrez beteta daude, batzuen gozamenerako eta besteen amorraziorako. Momentuz elurak ez du arazo larrik sortu.



## MENDIZABAL


OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE



# Roke Akizu, EAko zerrendaburu

Datorren maiatzeko Udal hauteskundeetan Roke Akizu izango da EA alderdiaren zerrendaburu ofiziala. Ezozin egindako aurkezpenean adierazi zutenez, aurten ez dira EAJrekin batera aurkeztuko, Soralueko EAko kideek hala erabakita. Mendi ingeniaria da Roke Akizu. Herriko baso masen egoeraren inguruko proiektuaren egilea eta natur gaietan aditua. Independiente moduan aurkeztuko da, eta bere lanaren ardatza ingurugiroa izango da.



## Soraluze 11. postuan udalerrien hizkuntza-politika sailkapenean

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Euskal Herriko 66 udalerriren hizkuntza-politika aztertu du eta Soraluze 11. kokatu du sailkapenean 5,75 punturekin. Lehenengoa Azpeitia da 6,82 punturekin. Dosierrak dioenez, "Udalerrietan hizkuntza-politika berria behar da, fun-tsezkoa baita euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Uda-

lek ere badute herria euskalduntzeko boterea eta erantzukizuna". Aurrerantzean herri guztietan euskara sustatuko duen hizkuntza politika eraginkorragoa ezartzea eskatu du.



## Erresidentziako lanen finantziarioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak lankidetzan protokoloa sinatu dute, Zaharren Egoitzako obrak finantzatzeko. Proiektuak 567.324 euroko inbertsioa izango du, eta Aldundiak %50 ordainduko du; gainerakoa, Soralueko Udalak.

## Hamabi partaide Berbalagunen

Berbalagun egitasmoa martxan da. Euaztenean aurkezpenean izan zuten, elkar ezagutu eta taldeak osatzeko. Hirunaka batuko dira, bi euskaldungai eta euskaldun zahar bat. Otsailean hasiko dira barriketan egiteko elkartzeko. Oraindik izena emateko aukera dago, Pil-pileanekin harremanetan ipinita.

## Sukaldaritza txapelketa Itxaropenan

"Patatak Errioxar erara" prestatzeko txapelketa antolatu dute Jubilatuen etxean. Otsailaren 16an goizeko 11etan izango da. Baldintzen artean, bazkide izatea, bikoteka aurkeztea eta otsailaren 9a baino lehen izena ematea eskatzen da. Erabili beharreko jeneroa Itxaropenak jarriko du.

**Juan Mari**  
*Arraindegia*

*Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**JATETKEA  
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**SAN ANDRES**  
**Iturgintza**

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behe  
Tfnoa 943 75 16 46



*Seguran jaioa da Peio Arrieta, segurar peto-petoa. Hizkerak eta pilotarako grinak salatzen dute bere sorterrria. 10 urtez profesionaletan jokatu eta 18 urtez gure herriko pilota-eskola aurrera ateratzen pasa ditu. Zituen, 7 urte pasatu dira-eta Sorahuzeko pilotariak entrenatzeari utzi zionetik. Bizitza osoa eman du pilotaren inguruan.*



## Peio Arrieta, pelotazale baino gehiago

### **Txikittatik pelotan orduan.**

Seguran harrizko etxe zaharrak dare, eta pareta harek erabiltzen genduzen frontoi moduan. Kaliak 6 metro zabal edo izango dira. Eta han ibiltzen ginan. Eta oraindik ez ginan beste paretera heltzen! Pentsa zelako txikixak ginan eta pelotia zelakua; pelotia jo paretan eta etxe bittartian ez ginan ailegatzen.

### **Ze dala eta dago holako afiziñua Seguran?**

Nik ez dakit hori nundik sortu zan, baina hori ez da oraingua. Ni mutiko txikixa nintzala, Seguran ez zeguan gizonezkorik pelotan ez zekixanik. Dana pelotia zan.

### **Pelotalekuan jokatzeko, burrukak?**

Bai. Ni pelotalekura juaten nintzanian, ia nagusixagotan, pelotia lurrian juaten nintzan danbada, tokezko zarata hori etaratzten. Pelotalekuan zerenak gaztiaguak bazian, danak pelotalekutik kale aldera begira. 150 bat metro hola egongo dira, arbolari baten, ni ikusitakuan, bazekixen kenduko notsela hareri ba. Eta neri be berdin-berdin egitten zosten beste batzuk aurretik. Pelotalekua hartzia, inposibilian hurrengua. Oin oster, haura berrittuta, pelotarixak falta.

### **Zein izaten zan erakustailia?**

Nik nere gainekuak ikusten nittuan. Han entrenadore biharrik ez zeguan, pelotarixa bera zan maisua eta. Ahal baldin bazan, zaharrenei begiratu eta haren kontra

jokatu. Eta zeinek jokatu? Ez zan erreza!

### **Eta neskak egitten zebe pelotan zuen sasoian?**

Bai bai! Gogoratzen naiz bai, Gemma Telleria. 10-12 urtekin, ondo egitten zeban pelotan; baina emon e? Pelotan ondo egin,e? Bakar-bakarrrik, ba, aurrera begira ez zeguan. Gaurko egunian, beste begiratu batekin begiratzten da, lagundu bebai, gerora begira palan edo beste modalidade baten ipini edo... Orduan ez zeguan holako gauzarik. Frontoira eskuan jokatzer. Pena bat da. Plazentzian be bazeren 3 neska ondo egitten zebe-nak, mutikueri be irabazten zotsen.

*“Entrenadore biharrik ez zeuan, pelotarixa bera zan maixua eta”*

### **Seguran bertan ze pelotarik urten dabe onak?**

Momentu honetan, Alustiza dago oraindio. Atzetik ez dator inor. Nere edadian, profesionalak izan dira, Aldanondo, Aristimuño, Gereñu, Arrieta, Alustiza eta Imaz. Eskukuak hori. Eta zestapuntan, beste bi: Oiarbide bi anaiak. Eta erremontian, orain txapeldun Ezkurrakin, Imaz eta Auzmendi. Herri txiki batetik. Pentsatu. Meritua dauka.

### **PELOTARI PROFESIONALA**

#### **Zeu zela hasi zinan profesionaletan jokatzen?**

Ni soldaduskara juan nintzan, Madridera, eta han jokatu neban Castillako txapelketia. Haura irabazi neban eta gero Espainiako txapelketara. Baina semifinala galdu egin neban, txapeldun geratu zanan kontra. Zumaixako Alberdi. Madriden irabazi ein notsan baina gero semifinala galdu. Gero etxera juan nintzanian, herrixan bertan debutatu egin neban, herriko jendiak eta hango enpresarixuekin berba eginda.

#### **Ze urtetan hasi zinan?**

1974a zan orduan. 23 bat urte nekazen nik, eta 10 urte egin nittuan. Aurrelarixa nintzan ni, 2.mailan.

#### **Zelako urtiak izan ziran?**

Bape suerterik ez neban eduki. Zuk pentsatu, 25 urtekin, semifinala galdu neban. Hurrengo urterako banenbilen entrenatzen, eta partidu danak irabazten; oso ondo nenbilen. Txapelketarako izena eman eta gero kendu egin ninduen. Zer alegatuta? 25 urtetik beherakuk jokatzeotan. Eta nik 26 urte nittuan. Arrieta kalera. Bazekixen txapeldun irtengo nintzala bai, eta gero primeran jokatuko nebala, baina ez zebe nahi.

#### **Zeintzuen kontra jokatutakua zara?**

Oreja IIIan kontra jokatu neban Bergaran. Arroyo lesionatu egin



**Duela 15 bat urte, Deba bailarako txapelketia irabazita**

zan eta neuri deittu zosten. eta ridikuluu laga neban. 22 eta 7 irabazi notsan. Legazpiko Santa Cruzetan be, jokatu neban estelarra, Fernando Tapian kontra irabazi 22 eta 16.

#### **Ze berezittasun zekazun zuk?**

Izan naiz pelotari bakararra, profesionaletan, sakiak boti-boolean egitten zittuana.

#### **Zer dala eta jokatzan zinuan boti-boolean?**

Nik ez nekan dirurik orduan Arroyon partidurik ikustera joateko. Esaten zebeu erremontian moduan etaratzen zebala, boti-bolea tipo hortara. Hola hasi nintzan eta neronek be ondo egitten neban. Jende asko kontra neukan, hori ez zala pelotari emotia, eta nik banekixan, baina profesionaletan batek egitten bazeban, nik zegaittik ez?


#### **Arazuak eduki zenduzen jokatzeko modu horregaittik?**

Bai hoixe. Afizionatutan be, batzuk alde, bestiak kontra. Behin Tolosan epailiak 13 falta eman zotzen. Esaten neban: "Ez jauna, beste batzuk be badare hola emoten dotsenak eta". Hurrengo egunian egunkarixan urten zan.

***"Sakiak boti-boolean egitten zittuan bakarra nintzan"***

#### **Zegaittik laga zenduan?**

Laga ez, bota egin ninduen. Nik neukan jokatzeko postura hori enpresari ez jakon interesatzen eta pelotari mordo bat kaleratu zittuen, 40 bat lagun hola. Hortik aparte nahi zebeu plantillia be jeitsi.



**1.975ean profesionaletan**

#### **MOTZIAN:**

**Frontoia:** nere herrikua aurtan egin dittu 100 urte, "Jai alai, aste ta jai".

**Pelotari bat:** aurrelarixak beti. Retegi II, Aimar Olaizola eta Irujo.

**Botilero bat:** garrantzitsuena pelotarixak berak bere momentu zailak dominatzeko karakterra eukitzia da.

**Momenturik gogorrena:** 25 urteko epia ipini zostenian.

**Momenturik onena:** Gabonetan Eibarren, garai hartan bete-bete eginda. Zigarro kez beteta. Alzolaren kontra. 22 eta 20 irabazi nion. Atzelarixekin ez naiz gogoratzen. Hari irabazten zotsanak, lehenengo mailarako bidia eginda zeukan. Eta nik hari irabazi egin. Harek eman zotan deretxua primeran jokatzeko, baina ni berriz lehengo lekura!

#### **Onik zer eman dotsu pelotia?**

Nik afiziñua eduki dot. Horrekin gauza txar guztiak azpitan lagatzen nittuan. Aldamenian traba asko eduki arren, nik segi.

#### **Oin zela bizi dozu pelotia?**

Telebistatik. Partidu guztiak ikusten dittut, andriakin jarritta. Garai baten marrazki bizidunak moduan, holaxe.

## **"Garai hartan zeren pelotarixak oso onak Plazentzian"**

*Txurruka fenomenua zetorren, egin egin bihar zeban pelotan harek. Jauregi be hor dabil, Muguruza pasatu biharrekua zan. Mutiko harrek eman zian pena edarra. Garzia bera be, 4'3oko txapelketan txapeldun urten zan, eta gero eskuko minakin. Herri honetan danak eskuko arazuekin! Ez dakit zerena dan. Profesionaletan gehixago sartu bihar genduan.*

## **PLAZENTZIAKO PELOTA-ESKOLA**

### **Noiz hasi zinan umieri erakusten?**

Pelotatik bota ninduenian, horrek motibatuta. Eta semiari bakarrik edo beste berrogeiri erakutsi, antzera. Hemen ez zegoen pelotarik. Neronek egitten nittuan pelotak. Holaxe ibili nintzan. Bai ikastolako pelotalekuan, Batzokixan... Umiak be gehixago etortzen hasi ziran eta jendia behar neban nik laguntzeko.

### **Egunero juan bihar gainera.**

Egunero 3 ordu jarduten neban nik pelotan. Ez zeguan neretako jairik, e? Zapatu eta jaixan be mutikuekin. Ni ibili nintzan bolkatuta, itsututa.

***"Neronek egitten nittuan umiendako pelotak"***

### **Zelako pelotarixak zian zure ikasliak?**

Mutikuekin oso ondo konpontzen nintzan. Jauregi oso ondo dabil. Txurruka ere, fenomeno zetorren, egin egin behar zeban pelotan harek. Eta zenbat pelotari juan dian pikutara. Neronek ikusten dot, neronek egin dittut-eta.

### **Zenbat denboran ibili zinan entrenatzaile lanetan?**

18 urte egin nittuan hemen. Orain dala 7 urte bukatu zan. Nik alde egin neban, ezin nebalako aguantatu. Amorrua emoten dosta nik zela bukatu neban hola, zegaittik inork be ez dostan galdetu zegaittik laga neban. Min asko eman doste. Pelotia nun dago orain? Nik jakin baneu...Pelotarixak zetozen politak eta. Hori ezin neike barkatu.



# Santa Ageda ospakizunak 3 egunetan

Zapatuan hasi eta astelehena bitartean, Santa Ageda eguneko ospakizunak izango dira herrian, Bertso Eskola, Abesbatza eta Musika Eskolak antolatuta.

Zapatuan, San Blas egunez, **base-rriz baserri** joango dira trikitilari, bertsolari eta laguntzaileak koplak kantatzera, goizeko 8:00etan irten- da. Aurten bi talde egingo dituzte, ahalik eta baserri gehienetara hel- zeko asmoarekin.

Domekan, Santa Ageda bezperan, **Ezoziko Ama Abesbatza** urtengo da eguerdiko 13:00etan txistulari bete- ranoekin batera kalez kale kantuan egitera. Ondoren bazkaria izango dute.

Astelehenean, Santa Ageda egune- an, **Musika Eskolako** txanda. Ka- lejira antolatu dute iluntzeko 7eta- rako Herrian geldiuoneak egingo di- tuzte eta koplak eta abestiak eskaini, txistulariak eta banda lagun.



## Umeentzako zinea otsailean

Domeketan kapillan izaten den zi- neak otsailean ere jarraituko du emankizunak eskaintzen. Urtarri- leko azken domeka honetan "Tin- tin-Tornasol arazoak" filmea izan- go da ikusgai.

Otsailak 4: Asterix Menhirkada  
Otsailak 11: Harry Potter y el caliz de fuego  
Otsailak 18: Ice Age II  
Otsailak 25: Madagascar

## Antzerkia gaztetxean

Barixaku gauean, 22:30etan, "La Lentejuela Excéntrica" Antzerki Tal- deak "Cabaret?" obra eskainiko du Gaztetxean.



## Dantza Taldearen ensaioa

50. urteurreneko ospakizunetarako ensaioa egingo da gaur arratsaldean, barixakua 26, goiko eskoletan. Dan- tzariez gain, txistulariei ere deialdia egiten zaie, batzen hasi eta kantuak prestatzeari ekiteko.

## "Darling Shoes" Ondarroan

Zapatuan kontzertua eskainiko du Darling Shoes tale soraluzetarrak On- darruko Gaztetxean gaueko hamarretan. Rock and Rolleko klasikoak eta beraien kantu propioak joko dituzte.



kutxa

gizarte ekintza



## MENDATA taberna

Pizzak  
Bokadilloak

Sukaldetik  
zure  
etxera!!

Kazuelitak  
Razioak

ostirala 08:30 - 22:30  
larunbata 08:30 - 22:30  
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



HNOS. BENITO  
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



# Auzolan, “gustora ari gara lanean”

*Malika, Cris, Bea, Laura, David, Juan, Antonio eta Manuel elkarrekin Kiroldegiko goiko sarrera, hall-a eta erakusketa gela pintatzen ari dira. Barrez eta alkarri adarra jotzen dabilta, giro onean, paretak kolorez eta umorez jazten.*

8 gaztek dihardute Auzolan programan parte hartzen, lan formakuntza eta praktika batzen dituen egitasmoan. Ekainera bitartean, bi ofizio ikasiko dituzte. Begirale batekin ofizioa ikasten dute eta proiektuko koordinatzailearekin lan-hezkuntza lantzen dute. Lanerako eta bestelako beharretarako gizarteak eskaintzen dituen baliabideak ezagutzen eta erabiltzen ari dira. Ez darabilte presarik. Lana ondo egin nahi dute, dena txukun eta polit gera dadin.

## **Ofizioak eta bide berriak**

Orain lehenengo zatian dabilta, pinturarekin gehien bat, eta ondoren lore apainketa eta desbrozean arituko dira, mendiak eta mendi bideak garbitzen.

Bien bitartean lan munduko ohi-

tura eta arauak lantzen dihardute: puntualitatea, lan-arauak, talde lana, aginduak betetzea... Teknologia berriak eta lanerako herramintak ezagutuko dituzte. Informatikako ikastaroa eta konpentzi-balantzea egingo dituzte, kurrikulumak, aurkezpen kartak... nola egin ikasteko. Lanbide.net, langai eta INEM-ekin harremanak nolakoak diren ikasiko dute.

Norberaren lan-preferentziak eta gustuko dituzten lanbideak zein diren galdetuta, horretara heltzeko eman beharko lituzketen pausoak ezagutarazten dizkiete.

## **Lanmunduratzea helburu**

Auzolan programaren bitartez, lanmunduratzeko bidea egiten ari dira. Eusko Jaurlaritzaren proiektu

tu honi esker, Udalak diru-laguntza jasotzen du. Horrekin, 8 langileak kontratupean daude, 6 hilabeterako, 6 ordu egunean. Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak, edo haien senitartekoak dira parte hartzen ari direnak.

Begiralea eta Koordinatzailea Sartu enpresakoak dira. Formakuntzaren ardura dute beren gain, baita ikastaroa bukatu osteko jarraipena ere.

Koordinatzaileak esan digunez, “oso talde ona da, oso langilliak dira, eta talde girua, asistentzia, puntualitatea... oso ondo darioie. Gaztiak dira, 18-32 urte bittartekuak. Ilusiño haundixakin dihardue: ikastera irikita, entzutera, emandako informazioa oso ondo hartzen dabe... Ikusten da gogoz dabilzela.”



*Barandauak lijatzen*



*Ateak margotzen*



*Espatularekin lanean*



*Kiroldegiko sarrean, andamio eta guzti*

# Euskal Herriko mendietara irteerak domeketan

Aurtengo urtean ere, Soraluzeko Mendi Taldeak irteerak antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Inguruko mendietara joateko aukera eskaintzen dute, lagun taldean. Izena aldeztu aurretik eman behar da eta autobusa goizeko 8:30etan izaten da Gila Zubian.

Urtarrilak 28: **Andutz** 612 m.  
(Itziar - Deba)  
Otsailak 25: **Kalanua** 768 m.  
(Arrate - Eibar)  
Martxoak 11: **Ibilaldi neurtua**  
(Bergara)  
Apirilak 22: **Enaitz** 1.300 m.  
(Arantzazu)  
Maiatzak 27: **Jaizkibel** 545m.  
(Trintxerpe - Guadalupe)



## Jubilatuentzako mantenu gimnasia

Hasi dira jubilatuentzako mantenu-gimnasia klaseak kiroldegian. Izena eman nahi duena, Udaletxera joan beharko da, hilabetea hasi

aurretik. Ordaindu ere hilabetea hasi aurretik egin behar da. Hileka izena eman eta ordaintzeko aukera dago.

### EMAITZAK

#### ESKU PILOTA

Urtarrilaren 12tik 25era

|                             |    |
|-----------------------------|----|
| • Capellan - Laskurain      | 22 |
| Berasaluzeko IX - Barriola  | 19 |
| • Eugi - Laskurain          | 18 |
| Capellan - Barriola         | 22 |
| <i>Ohorezko Euskal Liga</i> |    |
| • Erroizenea - Jauregi      | 22 |
| Gernikako bikotea           | 7  |
| • Erroizenea - Jauregi      | 22 |
| Vicente - Ereñu             | 12 |
| <i>Udaberri txapelketa</i>  |    |
| • Atxotegi - Loiola         | 22 |
| Oiaga - Aldazabal           | 5  |

#### FUTBOLA

- Sora 2 - Mondragon B 0 (Erreg.)
- Sora 3 - Beasain B 1 (jub.)

### AGENDA

#### FUTBOLA

**Zapatua 27**, 17:45etan, Bergaran

- BTLS - Sora (Erreg.)

**Domeka 28**, 13:30etan, Irunen

- Behobia - Sora (jub.)

**Domeka 28**, 11:30etan, Zestean

- Zestoa - Sora (kad.)

#### ESKU PILOTA

**Barixakua 26**, 20:00etan, Aretxabaletan

- Atxotegi - Loiola
- Aretxabaletako bikotea

**Zapatua 27**, 16:00etan, Añorgan

- Erroizenea - Jauregi
- Amezketako bikotea

## PLACENCIA

### KONTSUMO KOOPERATIVA

*Esku eskura! Tlf.: 943 75 13 45*

**IRATXO GOXOTEGIA**

EGUNKARIA  
ETXERA ERAMATEN DIZUGU  
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
tlf: 943 75 13 20

**Desing**

*Diseinua eta Sormena*

Polígono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

## IÑAKI IÑARRA

### HARATEGI ETA URDATEGIA

**CERTICAR**

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



# Aitziber Aldazabal

*Aldasoro baserrian elurra besterik ez da ageri. Ataria garbi dago, baina ingurua zuri-zuri. Aitziber, Patxi eta Urko sukaldearen epelean geratu dira lasai, kanpoko hotzetik ihesi. Ezin inora mugitu, baina gustura daude etxeko goxotasunean.*



## **Negua etorri eta ezin urten. Gustoko dozu edurra?**

Eguzkixa nahixago nik, baina beti komeni da sasoian sasoikua egitia. Lehen zan ba, azarotik hotz gehixago, eta luzia negua. Eta oin motzagua da. Baina o-tsailian be beti botatzen dau galanta, karnabalen inguruan.

## **Kalte ala mesede gehixago?**

Geuretako lana gehixago izaten da, atarixa eta bidiak garbittu bihar, animalixendako be janik ez... baina kotxiak dirala eta ez dirala, bateron batzuk etaratzen dotse probetxua.

## **Kalera bajatzeko zela konpon-tzen zarie?**

Oindiok ondo gabiz. Edur haundixa egitten dabenian, makinia pasatzen da, egunian behin. Ta bestela oinez edo bertan geratzen gara.

## **Nahikua izaten da makinian pasaria?**

Generalian ez. Batzuetan gainera azkenengo orduan etorri izan da, ilundu eta gero igual. Karrilak garbittu bai baina gabian izoztu. Berandu, eta gero izotza.

***“Lau buelta be egitten nittuan nik ikastolara juateko, ttpa-ttpa”***

## **Auzokuak ibiltzen zarie bide garbitzen?**

Auzuan beti tratora dakana ibiltzen da, Munetakua. Atarixa be

garbittu egitten dosku, guretako kriston mesedia. Baina eskatuko notsake Udalarri auzokuak pare bat ordu egitten badittu lan hortan, horrek kobratzia.

## **Zure ume denporan negua gogorragua zan?**

Lehen edurra gehixago. Eta orduan eskabadorarik eta ezer ez zegan. Geuk kendu bihar. Eta bestela oinez, tapa-tapa. Gainera izotzakin eta, batzuetan urik bare geratzen ginan, tuberixak izoztuta, eta askatik ekarri bihar galda-retan.

## **Lehen ikastolara juateko eta?**

Goizeko 6retan jaiki, marmittak hartu eta benga! Oinez kalera. Askotan amamakin. Esnia partidu eta gero ikastolara, dana bustibusti eginda. Amantalakin bakarrik gero! Akordatzen naiz, ginasia eta amantalakin bakarrik. Eta 4 aldiz be bueltia, goizian, bazkaltzera, arratsaldian behera eta iluntzixan etxera. Lehen benga eta benga, ikastolara juan egin bihar zan.

## **Oin eskolara juan bez igual.**

Eguraldi txarra daguala, eta etxian. Biher be txarra, eta etxian! Ez da lehengo moduan. Lehengo jendia gogorra zan.

## **Ganaduari eta ortuari zela eragittent dotsa?**

Guk ez dakagu asko, baina jaten emon bihar, eta barruan euki, eta udan be lana egin bihar lastua eukitzeko. Ortuari sasoi honetan kipulak, baba beltza, idarrak eta, egoten dira eta horrek gogor eusten dotse. Ez gure moduan.

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

**MABE**  
ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA  
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

## Argazki zaharra



Iturria: Abel Olaizola

### Aldarera begira

1.215 eta 1.267 urtietako batzuek ordurako Sorraluze izeneko nukleuan elizia bazeguala ziurtatzen dabe. Elizian kapilla nagusixan eirakuntza prozesuan gainian, 1.541etik aurrerako dokumentuak dinue Pascual de Iturriza izan zala lanak zuzendu zittuana. Aldarearen irudia 40.hamarkadakoa da.

## Lehiaketa

### Plaza Barrixa...



**Aurreko aleko erantzuna**

Plaza del Tercio de Montejurra zan, 1936xan erreketenaparrak herrixan sartu zianetik. Handik 4 hamarkadataraz berezko izena hartu zeban berriro. 1831an eraikitakua, ospakizun garrantzitsuenen kokaleku izan da beti.

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Ze izen zekan Plaza Zaharrak gerra ostian?

- Plaza de Navarra
- Plaza de Madrid
- Plaza de Paris

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04 ra**

edo e-mail bat bidal ezazu:

**[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)**



**SARIA**



Fisioterapia saio bat Ormazabal zentroan

**AURREKO ALEKO IRABAZLEA**  
Soraya Oruesagasti

**SARIA**  
Fisioterapia saio bat Gogortuz zentroan



### ESKERTZA

2006ko abenduaren 26an hil zen  
86 urte zituela

**MARIA ISASTI URANGA**

Goian bego







# UGARAXO

2007ko urrtarrila

HEMENTXE GAUDE  
TARRAPATATAN  
NESKA-MUTILAK  
TARRAPATATAN  
4 URTEKOAK  
TARRAPATATAN  
DANBORRA LOTU  
TARRAPATATAN  
TXAPELA IPINI  
TARRAPATATAN  
"SAN SEBASTIAN"

MARTXA  
TARRAPATATAN  
JOTZEKO PREST  
TARRAPATATAN  
GUSTOKOA BADA  
TARRAPATATAN  
TXALOA JO  
TARRAPATATAN  
MUXU BAT  
TARRAPATATAN, TAN,  
TAN



## GABONAK GOGOAN KALEJIRA

Urtero bezala, Abenduaren 24an, gure kaleetatik Olentzero txikik eta Mari Domingi txikik kalejira dotore eta alaia egin zuten musika eskolako ikasle eta ikastolako haurrekin batera.


Gaur, 1go mailako ikasleok, Olentzero eta Mari Domingiri elkarrizketa txiki bat egitea erabaki dugu.



**Nahi al zenuen Mari Domingi txiki izan?**  
Zozketa egin aurrez nik nahi nuen Mari Domingi izan, eta sortea izan nuen.  
**Kalera irten baino aurreko gauean, nola egin zenuen lo?**  
Ondo lo egin nuen, pozik nengoen.  
**Egun horretan goiz jaiki al zinan?**  
Goiz jaiki nintzen.  
**Zer moduz ibili zinan kalejiran?**  
Ondo, gustura.  
**Zer moduz portatu zen jendea zuekin?**  
Ondo.  
**Zer esango zenioke datorren urteko Mari Domingi txikiri?**  
Ondo pasatuko duela. Egun polita dela.



**Nahi al zenuen Olentzero txiki izan?**  
Zozketa egin zuten gelan eta nire izena irten zen.  
**Kalera irten baino aurreko gauean, nola egin zenuen lo?**  
Ametsetan ibili nintzen.  
**Egun horretan goiz jaiki al zinan?**  
Beti bezala.  
**Zer moduz ibili zinan kalejiran?**  
Ondo, gustura.  
**Zer moduz portatu zen jendea zuekin?**  
Ondo.  
**Zer esango zenioke datorren urteko Olentzero txikiari?**  
Ondo pasatzeko.





## TXIKI - INKESTA

Zein da gehixen gustatzen jatzun jolasa?  
Lagunekin zetan jolasten dozu? Eta familixakuekin?

### IRENE PEREZ, 9 URTE

PI-20 jolasa dot gustoko. Bat dao kontatzen eta bestiak ezkutatu egitten dira. Eta gero bestiak harrapau egin bihar dittu, PI eta bere izena esanda. Aitakin eta amakin ez dot jolasten, baina gustatuko jatan. Anaiakin, orde-nagailuko jokuetara.



### LANDER OLEAURRE, 9 URTE

Lagunekin futbolian ibiltzia da onena. Kotxiak be gusta-tzen jataz, Play Stationeko Tuning jolasak eta. Lagunekin harrapaketan bebai. Nere amakin eta lehengusuakin txistiak eta asmakizunak kon-tatzen ibiltzen naiz, eta barre asko egitten dogu.



### MIKEL RECIO, 10 URTE

Futbola da gehixen gustatzen jatana. Patixuan jolasten dogu, eta eskubaloian baitta. Kalia Game Boyxakin ibil-tzen gara. Etxekuekin batzue-tan Party-ra eta jolasten dot. Sarrixago be jolastuko neuke. Anai txikixakin Play Stationera, Monopolira...



### MAIALEN OREGI, 9 URTE

Soka saltuan gustora ibiltzen naiz neskekin. Mutilak ez dabe jolasten. Kalia harrapaketan jolasten dogu. Gurasuekin ez dot jolasten, baina gustatuko jatan berekin mahai jokuetara jolastia. Anaiakin Partxisian eta Sudokuak egitten ibiltzen naiz.



### BERTA ALONSO, 9 URTE

Muñeketara jolasten dot gustora, nik bakarrik. Lagunekin soka-saltuan, PI20ra... jolasten dogu jola-sorduan. Aita eta amakin batzuetan ajedrezian jolas-ten dot, baina ahiztiakin ixa inoiz. Nahi neuke gehixago jolastu berakin.




### IGNACIO PEÑALBA, 10 URTE

Futbola eta saskibaloia gus-tatzen jataz gehixen. Eskola kirolian jolasten dogu eta Eibarrera be juaten gara ba-tzuetan. Jolasorduan be bai, tokatzen dana: eskubaloia, futbola, saskibaloia... Nere arrebiakin eta aitakin futbo-lian jolasten dot.



## DENBORAPASA

### BI BAKARRIK DIRA BERDINAK



## GABONAK GOGOAN TXIKI PARK

Abenduaren 15an, 1go zikloko ikasleak Donostian dagoen Txiki park- era joan ginen. Bidaia autobusez egin genuen.

Bertara iritsi ginenean, potsak utzi, zapatilak kendu eta jolastera!

Bi ordutan aritu ginen, jo ta su. Zein ondo. Zenbat bola. Zein txirrista luzea... Zenbat kolpe. Zenbat barre....

Denbora bizkor- bizkor pasatu zen.

Goiko pisuan bazkaldu genuen.

Dantza batzuk egin, txiste batzuk kontatu eta berriro Soraluzera.

